

XEDAPEN OROKORRAK

OGASUN ETA FINANTZA SAILA

1493

183/2013 DEKRETUA, martxoaren 19koa, zeinarekin honako programa garazten baita: enpresa txiki eta ertainak, banako enpresarioak eta profesional autonomoak finantzarioki laguntzeko programa.

Nazioarteko egungo krisi ekonomiko eta finantzarioak oso eragiten die honako hauen egoerari: enpresa txiki eta ertainen kolektiboa, banako enpresariak eta autonomoak, hain justu epe labur eta ertainera irauteko dituzten aukerei dagokienez. Egoera horren larritasuna areagotu egiten da nazioarteko eta estatuko ingurune finantzarioaren ondoriozko finantza-murrizketak direla-eta.

Eragile ekonomiko horiek enpresen esparruan duten garrantzia, ekoizpen jardueran nabarmen esku hartzen dutela eta finantzaketa merkatuetara edo kreditu erakundeetara neurri txikiagoan heltzen direla kontuan hartuta, salbuespen modura talde horiei behar duten finantzaketa emateko bitarteko bat prestatu beharko da, betiere egoeraren arabera.

Laguntza finantzarioa emateko programa hori baliarazteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak emango duen laguntza honako honetan oinarrituko da: bere babespen ituntzen diren mailegu-eragiketen birfinantzaketa partziala. Eta hartarako oinarria hauxe da: Euskal Autonomia Erkidegoaren 2012ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 6/2011 Legeko 9. artikulua; aurrekontua orokorrak 2013ko ekitaldira luzatu ziren. Finantza-laguntzarako programak 600 milioiko zuzkidura du, formalizatutako maileguetan; eta ETEen eta autonomoen zirkulatzailako finantzaketa-eta likidezia-premiei aurre egiteko helburua du.

Hartarako, dekretu honek arautu egiten ditu, bai programan izateko baldintzak, bai entitate eta pertsona onuradunak, bai baliabideen erabilgarritasuna, eta bai maileguak eraenduko dituzten baldintzak ere. Elkarrekiko berme-baltzu eta finantza-erakunde laguntzaileen aurrean, finantzaketa-eskabideen izapidetze-prozedura ere hartzen du. Bestalde, ondoren zehaztutakoan artean lankidetzak hitzarmenak sinatzeko aukera ere jasotzen da Dekretuan: EAEko Administrazioa, finantza-erakundeak eta Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak, baldin eta programa finantzatzeko funtsak jartzeko interesik badute, hain justu ere euren inbertsioak gauzatzeko, ban-ku-gordailu egokiak aurkeztuaz.

Ondorioz, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko martxoaren 19an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea.

Dekretu honen helburua da enpresa txiki eta ertainentzako, banakako enpresaburuentzako eta profesional autonomoentzako finantzaketa-lerroa eratzea, hori eskuratzeko baldintzak eta prozedura arautuz. Lerro horren helburua da banku-finantzaketa lortu ahal izatea zirkulatzailaren beharrak estaltzeko, epe laburrerako zorra berritzeko eta epe laburrerako epea moldatzea epe ertain eta luzekora.

Hartarako, elkarrekiko berme-baltzu eta finantza-erakunde laguntzaileen bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak ETEen eta autonomoen aldeko finantzaketa-lerroa eratuko du; izan ere, administrazio horrek haiekin lankidetzeta-hitzarmenak sinatuko baititu.

2. artikulua.– Entitate eta pertsona onuradunak.

1.– Dekretu honetan zehaztu bermeak eta finantzaketa-lerroak baliatu ahal izan dute ondokoek:

a) Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten enpresa txiki eta ertainak (ETE), baldin eta hurrengo baldintzak betetzen badituzte:

– Jarduera ekonomikoren bat egitea.

– 250 langile baino gutxiago dituzten enpresak.

– Urteko negozio-bolumena 50 milioi eurotik gorakoa ez izatea, edo urteko balantze orokorra 43 milioi eurotik gorakoa ez izatea.

– Zuzenean edo zeharka, haren kapitalaren % 25 edo gehiagoko partaidetza ez izatea aurretik adierazitako baldintzaren bat betetzen ez duen enpresa batek edo batzuek.

Aurretiaz adierazitakoaren beste edozein interpretazio egiteko, Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/CE Gomendioan (EEAO, L124, 2003ko maiatzaren 20koa) enpresa txiki eta ertainen definizioari buruz ezarritakoa edo gomendio hori ordeztu edo aldatzeko xedapenak hartuko dira kontuan.

b) Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten banakako enpresaburu eta profesional autonomoak, baldin eta hurrengo baldintzak betetzen badituzte:

– Norberaren konturako langileen edo autonomoen Gizarte Segurantzaren Araubide berezian alta emanda izatea.

– Pertsona Fisikoen Errentaren Zergari lotutako jarduera ekonomikoen edo profesionalen bidez etekinak lortzea.

2.– Entitate eta pertsona onuradunek, Euskal Autonomi Elkarteko Finantzei buruzko azaroaren 8ko 8/1996 Legeko 39. artikulua 2. eta 4. paragrafoetan ezarritako betekizunak bete beharko dituzte.

Jarduera ekonomikoko sektore guztiek jaso ahal izango dute finantzaketa. Hala ere, eta 15. artikuluko 1. paragrafoan ezarritakoa errespetaturik, onuradun izatetik kanpo gerazten dira: erakunde

eta sozietate publikoak; irabazte-asmorik bako entitateak, jarduera ekonomikorik ez badute egiten; finantza-erakundeak (I.A.E epigrafeak: 81, 82, 831 eta 832), eta higiezinaren arloko jarduerak (.A.E epigrafeak: 833, 834 y 861.1).

3.– Finantzaketa eskuratu ahal izateko enpresa ezin da egon krisi egoeran, Europako Batzordearen 2004/C 244/02 Komunikazioan ezarritakoa betez (EEAO, 2004ko urriaren 1ekoa); horrez gain, enpresak egunean izan behar ditu foru-aldundiekiko eta gizarte-segurantzarekiko betebeharrak.

3. artikulua.– Finantzatzeko moduko egoerak.

1.– Finantzatu egin daitezke finantzaketa-eragiketak, baldin eta honako helburuak badituzte: kapital zirkulatzaileko likidezia- eta finantzaketa-premiei aurre egitea; epe laburrera zorra berri- tzea, eta epe laburrerako epea moldatzea epe ertain eta luzekora.

2.– Kapital arruntaren finantzaketa-beharrak aztertu ondoren, elkarrekiko berme-baltzuak, dekretu honetako III. kapituluan ezarritako prozedurari jarraituz, bermearen helburu den mailegurako finantza-eragiketaren zenbatekoa eta epea zehaztuko ditu.

II. KAPITULUA

MAILEGU-ERAGIKETAK

4. artikulua.– Hitzarmenak elkarrekiko berme-baltzuekin, finantza-erakundeekin eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeekin.

1.– Dekretu honetan ezarritakoaren arabera gauzatuko diren mailegu-eragiketa guztiek elkarrekiko berme-baltzuren batek abalatura egon beharko dute. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta eragiketaren parte hartuko duten elkarrekiko berme-baltzuek hitzarmena sinatuko dute eta, horren bitartez, berme-sistema emango zaie baltzu horiek abalaturako finantza-eragiketei.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta finantza-erakundeek lankidetzahitzarmenak sinatuko dituzte, maileguak onuradunen alde gauzatzeko.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, finantza-erakundeek eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeek lankidetzahitzarmenak sinatu ahal izango dituzte, betiere, finantzaketa-programan finantza-erakunde laguntzaile direnen banku-gordailuen figuraz finantzaketa lortzeko formulak artikulatzeko, hain justu ere inbertsioak gauzatzeko egoki direnak.

5. artikulua.– Abal-eragiketen ezaugarriak.

1.– Elkarrekiko berme-baltzuek emandako finantza-abalek onuradunen diruzko arriskuak bermatuko dituzte, zuzenean edo zeharka, finantza-erakunde laguntzaileen aurrean, dekretu honetako lehenengo artikuluan definitutako beharrianak estaltzeko erabili diren mailegu-eragiketetatik eratorri badira.

2.– Honakoak izango dira abalen kostua eta baldintzak:

– Azterketa-komisioa: maileguaren zenbateko nagusiaren % 0,10, behin bakarrik, abala eskatzean.

– Gauzatze-komisioa: formalizatutako abalaren % 0,20, behin bakarrik.

– Abal-komisioa: % 0,75 urteko. Aurretiaz aplikatuko da, urtarrilaren 1ean, abalatutako maileguaren urteko batez besteko saldoa oinarri hartuta. Formalizatu den urtean eta behin betiko iraungiko den urtean, urtea amaitu arte edo iraungi arte benetan igaro den egun kopuruaren arabera proportzioan aplikatuko da, batez besteko saldoaren arabera.

– Ez da bestelako komisio edo gastu gehigarriak aplikatuko.

6. artikulua.– Maileguen ezaugarriak.

1.– Finantzaketa-eragiketek honako ezaugarri hauek izango dituzte:

Baliabidea: mailegu amortizagarria.

Interes-tasa: hamabi hilabeterako euriborra, gehi % 3,5

Ondorio horietarako, Euribor gisa ulertu behar da, Reuter-en EURIBOR= pantailaren bidez (oinarria: Act/360) edo, aurrekoa desagertuz gero, informazio bera eman dezakeen beste pantaila baten bidez, lortutako bankuen arteko interes-tasa. Tasa hori hamabi hilabeterako gordailuetarako da, eta eragiketaren dataren edo berrikuspen-dataren aurreko bigarren egun baliodunean kalkulatzen da. Ez da biribiltzerik onartuko.

Hala ere, finantza-erakundeak SGR bermeko ICO linearen hitzarmenetik datozen funtsak erabiltzen baditu, edo BGAEekiko hitzarmenetatik datozen funtsak, enpresa onuradunari aplikagarri zaion interes-tasa hau izango da: interes finko edo aldakorra, mailegua ordaintzeko datan indarrean dagoen ICOk argitaratua edo BGAEekiko aipatutako hitzarmenean ezarritakoaren arabera eratutako gordailuen ordainsariaren interes finko edo iraunkorra % 0,75 gehitzearen ondorioa.

Hiruhilabete natural bakoitzaren akabuan berraztertu daitezke interes-tasak; eta hori honako zuzendaritzak egingo du: diruzaintza, zorpetze eta bermeak ematearen arloak eskuduna dena. Tasa berriak aplikatuko zaizkie emandako maileguei finantza-erakundeek haiei buruzko jakinarazpena egiten denetik hara.

Epea:

– 3, 5 eta 7 urte, eta beste bat aukerako gabealdikoa zenbateko nagusia amortizatzeko.

Hiru hilean behin egingo da interesen eta amortizazio-kuoten likidazioa. Mailegua tasa aldakorarekin formalizatzen bada, interes-tasa berrikusketa hiru hilabeterik behin egingo da.

Maileguek ez dute inolako komisio edo gastu gehigarriak izango. Mailegu-hartzaileak aurretiaz ezeztatu edo amortizatu ahal izango du mailegua, inolako kosturik gabe.

2.– Honako hauen artekoa izango da maileguen zenbatekoa:

a) 50.000 euro eta 650.000 euro artean, enpresa txiki eta ertainentzat.

b) 10.000 euro eta 100.000 euro artean, banako enpresarientzat eta profesional autonomoentzat.

c) Zehaztasunak:

Abenduaren 20ko 1535/2007 Erregelamenduan (EEAO, L 337/35, 2007-12-21) zehaztu nekazaritza-produktuak ekoizten jardunez gero, banako enpresarioei eta profesional autonomoei aipatu erregelamenduko 3.6 d) artikuluan ezarritako muga aplikatuko zaie.

Uztailaren 24ko 875/2007 Erregelamenduan (EBAO, 193/6, 2007-07-15) zehaztu arrantza sektorean diharduten eskatzaileei aipatu erregelamenduko 3.7 e) artikuluan ezarritako muga aplikatuko zaie.

3.– Emandako maileguaren zenbateko osoa eskura dute onuradun diren banako enpresarioek eta profesional autonomoek. Finantza-erakundeak ezin dezake saldorik atxiki edo pignotatu, ez eta aplikatu antzeko figurak, zehazki, emandako kredituaren edo maileguak eskura duen zenbatekoa murriztea dakartenak.

III. KAPITULUA

PROZEDURA

7. artikulua.– Deialdia.

1.– Dekretu honek araututako finantzaketa-lineak eskuratzeko deialdia egingo da; Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da hori, eta publizitate, lehia eta objektibotasun printzipioei jarraitu beharko zaie.

Ogasun eta Finantzetako sailburuaren aginduaren bitartez egingo da deialdia, eta erabilgarri dauden baliabideen guztizko zenbatekoa, eskabideak aurkezteko lekua eta gainerako prozeduralderdiak zehaztu beharko dira bertan. Era berean, deialdian laguntzaile diren finantza-erakundeen eta elkarrekiko berme-baltzuen zerrenda ere zehaztuko da.

2.– Deialdian, edo deialdi guztien artean, gutxienez 40 milioi euroko zenbatekoa bermatuko da, eta eskari nahikoa egonez gero, beste 150 milioi euroekin handitu ahal izango da zenbatekoa, dekretu honetako I. kapituluan definitu diren banakako enpresaburu eta autonomoentzat.

Hala ere, Ekonomia eta Ogasun Sailak zenbatekoak berresleitu ahal izango ditu, dekretu honetan azaltzen diren kolektiboetakoren batean finantzazio-eskaria nahikoa izan ez den kasuetan.

8. artikulua.– Aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Enpresa txiki eta ertain eskatzaileek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskabidea, eranskineko F1P formularioan jasotako ereduaren arabera.

b) Eskatzailearen ordezkari izateko ahalordearen fotokopia.

c) Eskabidean jasotzen diren alderdiak egiazkoak direla dioen aitorten erantzukizuneko (eranskineko F2P formularioa). Ikuskaritza-bisitan egiaztatu ahal izango dira, eta honako hauek dira, hain zuzen ere:

- Eskabidea egin aurreko ekitaldiaren abenduaren 31n plantillan zegoen langile kopurua, hila-bete horretako TC1aren arabera.

- Eskabidea egin den ekitaldiaren aurrekoan, abenduaren 31n, fakturatutako kopurua.

- Eskabidea egin den ekitaldiaren aurrekoan, abenduaren 31n, urteko balantze orokorraren kopurua.

- Zuzenean edo zeharka, haren kapitalaren % 25 edo gehiagoko partaidetza ez izatea enpresa txiki edo ertaina ez den enpresa batek edo batzuek batera.

d) Foru-aldundiekiko zerga-betebeharrak egunean dituela dioen ziurtagiria.

e) Foru Aldundiaren ziurtagiria, enpresak alta emanda duen jarduera ekonomikoen gaineko zergaren epigrafea azaltzen duena.

f) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria

g) Azken ekitaldietako urteko kontuak.

h) Pasibo galdagarria finantzatzeko beharizanen deskribapen-memoria. Enpresak egin behar du (eranskineko F3 formularioa).

2.– Banakako enpresaburuek eta profesional autonomoek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskabidea, eranskineko F1A formularioan jasotako ereduaren arabera.

b) Eskabidean jasotzen diren alderdiak egiazkoak direla dioen aitorten erantzukizuneko (eranskineko F2A formularioa).

c) Foru Aldundiaren ziurtagiria, profesionalak alta emanda duen jarduera ekonomikoen gaineko zergaren epigrafea azaltzen duena.

d) Foru-aldundiekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela dioen ziurtagiria.

e) Eskatzailearen ondasunen aitortpena.

f) 2012. urteko diru-sarrera eta gastuen egikaritzea, eta korritzen duen urterako aurreikuspena.

g) Pasibo galdagarria finantzatzeko beharizanen deskribapen-memoria.

3.– Eskatzaileak, gorago aipatutako aitortpenean jasotako datuen bat faltsutzen badu, indarrean dagoen zigor-araubidea ezarriko zaio, bai administratiboa eta bai penala ere.

4.– Edonola ere, Ekonomia eta Ogasun Sailak eta elkarrekiko berme-baltzu laguntzaileek, aurkeztutako eskabidea ulertu, ebaluatu eta tramitzatzeko beharrezko informazio osagarria eskatu ahal izango diote enpresa eskatzaileari.

9. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Hitzarmenaren arabera laguntzaileak diren elkarrekiko berme-baltzuen bulegoetan aurkeztu beharko dira eskabideak eta bai aurreko artikuluan aipatutako gainerako agiri guztiak ere.

2.– Pertsona eta entitate interesdunek informazioa ez eze, eskabide-orriak ere eska ditzakete, atari honetan www.ejgv.euskadi.net edo herritarrak atenditzeko Zuzenean zerbitzuan.

10. artikulua.– Eskabideak aztertzea eta abala baimentzeko agiria formalizatzea.

1.– Programan laguntzaile diren elkarrekiko berme-baltzuen ardura izango da aurkeztu diren eskabideak aztertu eta ebaluatzea, abala eman aurretik.

2.– Eskabidea ez badago behar bezala beteta edo 8. artikuluan zerrendatutako agiri guztiak ez badira aurkeztu, elkarrekiko berme-baltzu laguntzaileak eskatu egingo dio erakunde eskatzaileari, huts hori zuzendu edo nahitaezko agiriak aurkez ditzan 10 eguneko epean; era berean, agindutakoa bete ezean eskaera bertan behera utzi duela ondorioztatuko dela ohartaraziko zaio.

3.– Elkarrekiko berme-baltzuak autonomia izango du jaso dituen abal-eskabideak onartu edo ukatzeko, bai eta kontraberme erreal edo pertsonalak eskatzeko ere; horretarako, bere abalatzeko-jardueran erabili ohi dituen azterketa- eta erabaki-irizpideak aplikatuko ditu.

4.– Elkarrekiko berme-baltzu laguntzaileak, eskabidea aztertu ostean, «abala baimentzeko agiria» emango du, hala badagokio, eta F4 formularioan azaldutako informazioa zehaztuko da bertan.

5.– Elkarrekiko berme-baltzuak aldi berean emango die «abala baimentzeko agiriaren» berri onuradunari, finantza-erakunde laguntzaileari eta Ekonomia eta Ogasun Sailari.

6.– Elkarrekiko berme-baltzu laguntzaileak gauzatutako zein ukatutako abal-eragiketak jakinaraziko dizkio Ekonomia eta Ogasun Sailari, horretarako egin den lankidetzaz hitzarmenean ezarritako aldizkakotasun, betekizun eta erduei jarraituz.

11. artikulua.– Mailegu-eragiketak formalizatzea.

1.– Elkarren bermerako sozietateak onetsi duenean kreditu-eragiketak egiteko «Abala baimentzeko agiria» eta agiri hori kasuan kasuko finantza-erakundera bidaltzen denean, lankidetzaz hitzarmena sinatzen duen finantza-erakunderen batekin gauzatuko du abal hori entitate eskatzaileak.

2.– Finantza-erakundeek jakinaraziko dizkiete gauzatutako mailegu-eragiketak Ekonomia eta Ogasun Sailari, lankidetzaz hitzarmenean ezarritako aldizkakotasun, betekizun eta erduei jarraituz.

12. artikulua.– Finantzaketa-lerroa agortzea.

1.– Dekretu honetan oinarritutako emandako finantza-eragiketek 600 milioira ailegatzeaz batera etengo dira Dekretuan aurreikusitako laguntzak.

2.– Ogasun eta Finantzetako Sailak zirkunstantzia horren berri eman beharko du, hain justu ere bermeak ematearen arloan eskumena duen sailburuordearen ebazpen bidez, zeina Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den.

13. artikulua.– Onuradunen erreklamazioak.

Finantza-laguntza emateko programa honetan entitate eskatzaile direnek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiete Ekonomia eta Ogasun Sailari, eta elkarrekiko berme-baltzuari edo finantza-erakundeari entzun ostean bideratuko dira horiek. Aurkeztutako erreklamazioa honelaxe ebatziko da: bermeak ematearen arloan eskumena duen sailburuordearen ebazpen bidez.

14. artikulua.– Egiatzenak eta gainbegiratzeak.

Finantza-laguntza emateko programa honetako entitate onuradunek men egin beharko diete egiatzen-, ikerketa- eta ikuskapen-jarduerari, hain justu ere Ogasun eta Finantza Sailak egingandakoei. Egindako jarduketan ondorioz egiatzen bada ezen, entitate onuradunetarikoren batek ez-betetzeren bat egin duela, zirkunstantzia hori jakinarazi egin beharko zaio, bai elkarrekiko berme-baltzuari eta bai doakion finantza-erakundeari ere, zertarako-eta emandako finantzaketa ezeztatu dezaten, aurreratutako amortizazioaren bitartez.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak hartutako birfinantzaketa-obligazioen ondorioz Administrazioak jaso behar badu egindako paguen ordaina, betiere, hori entitate onuradun bati egozteko moduko ez-betetzeak direla-eta jazo bada, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak zehaztuko du, bidezko prozedura bideratu eta entitate onuradunari entzun ondoren, enpresa horren zorraren zenbatekoa eta hori ordaintzeko modu eta epea.

15. artikulua.– Laguntzen bateragarritasuna.

1.– «Minimis» estatu-laguntzen araudian ezarritakoa bete beharko dute eragiketek; honako erregelamendu hauetan jasotakoak, hain zuzen ere: Tratatu 87. eta 88. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzko 2006ko abenduaren 15eko 1998/2006 Erregelamenduan (EEAO, 379/5 L, 2006-12-28), Tratatu 87. eta 88. artikulua nekazaritza-produktuen ekoizpen-sektoreko minimis laguntzei aplikatzeari buruzko 2007ko abenduaren 20ko 1535/2007 Erregelamenduan (EEAO, 337/35 2007-12-21) eta Tratatu 87. eta 88. artikulua arrantza-sektoreko minimis laguntzei aplikatzeari buruzko 2007ko uztailaren 24ko 875/2007 Erregelamenduan (EEAO, 193/6 L, 2007-07-25).

Laguntza hauek bateragarriak izango dira beste edozein herri-administrazio, sail, erakunde publiko zein pribatuk emandako laguntzekin, betiere laguntzak metatuta ez bada eskuratzen kategorien araberrako salbuespenen erregelamenduan edo Batzordeak hartutako erabakiren batean inguruabar zehatzetarako ezarritako zenbatekoa baino gehiago.

2.– Arau honen bitartez onuradun izango diren pertsona edo erakundeek uneoro jakinarazi beharko diote Ogasun eta Finantza Sailari beste diru-laguntza edo laguntzaren bat jaso duten helburu bererako; halaber, zerga-ekitaldi horretan zein aurreko bi ekitaldietatik aurrera jaso dituzten minimis laguntzak ere jakinarazi beharko dizkiote.

IV. KAPITULUA

JARRAIPEN ETA EBALUAZIO BATZORDEA

16. artikulua.– Jarraipen eta Ebaluazio Batzordea.

Programaren Jarraipen eta Ebaluazio Batzordea eratuko da. Ekonomia eta Ogasun Saileko ordezkariak, elkarrekiko berme-baltzu eta finantza-erakunde laguntzaileetako eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeetako ordezkariak izango dira bertako kideak, eta programaren aplikazio eta bilakaera aztertuko du.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Finantzen Euskal Institutua subrogatu egin ahal izango da dekretu honetan zein bertatik eratorriko diren agindu eta lankidetzeta-hitzarmenetan Ogasun eta Finantza Sailari esleitutako eskubide, betebeharrak eta zereginetan.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena.– Ogasun eta Finantzarako sailburuak ahalmena izango du Dekretu hau garatzeko behar adina xedapen emateko.

Bigarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko martxoaren 19an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ogasun eta Finantzarako sailburua,
RICARDO GAZAGAECHERRIA BASTIDA.

MARTXOAREN 19KO 183/2013 DEKRETUAREN ERANSKINA

F1P

ESKABIDE-ORRIA

Espediente-zenbakia:Sozietatearen izena:.....

Izen-abizenak:..... NAN zk.:.....

Kargua:.....

Honako enpresa honen legezko ordezkartzan: IFZ:.....

Enpresaren jarduera:

Helbidea:

Tel.:.....Faxa:.....Helbide elektronikoa:.....

Honen bitartez, «Enpresa txiki eta ertainentzako, banakako enpresaburuentzako eta profesional autonomoentzako finantza-laguntzaren programa»ren laguntza eskatu nahi dut.

Eguna eta sinadura:

Honekin batera doazen agiriak:

- ↑ - Eskatzailearen ordezkari izateko ahalordearen fotokopia.
- ↑ - Enpresaren datuei buruzko erantzukizunpeko aitortpena.
- ↑ - Zerga-betebeharrak egunean dituela dioen ziurtagiria.
- ↑ - Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela dioen ziurtagiria.
- ↑ - Foru Aldundiaren ziurtagiria, enpresak alta emanda duen jarduera ekonomikoen gaineko zerga azaltzen duena.
- ↑ - Azken ekitaldietako urteko kontuak.
- ↑ - Pasibo galdagarria finantzatzeko beharizanen memoria.

- Izaera Pertsonaleko Datuak babesteko 15/1999 Lege Organikoan jasotakoa betetzeko, Ogasun eta Finantza Sailak ondokoa adierazi nahi dizu: agiri honetan idatzi dituzun datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugu, ondoren tramitatu ahal izateko. Datu horiek laguntzen duten elkarrekiko berme-baltzuei eta finantza-erakundeei laga ahal izango zaizkie, finantzaketa-programa kudeatzeko. Eskatzaileak datuak kontsultatu, zuzendu, baliogabetu eta aurkaratzeko eskubideak erabili ahal izango ditu, Legeak aurreikusten duenez, Ogasun eta Finantza Sailaren aurrean: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

2013ko martxoaren 22a, ostirala

F2P

ERANTZUKIZUNPEKO AITORPENA

Espediente-zenbakia:Sozietatearen izena:.....

Izen-abizenak:..... NAN zk.:.....

Kargua:.....

Honako enpresa honen legezko ordezkartzan: IFZ:.....

ADIERAZTEN DU:

- 1.- Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duela.
- 2.- Europako Batzordeak ETEentzako ezarritako baldintzak betetzen dituela.
- 3.- Indarreko legediaren arabera, zerga-betebeharrei dagokienez, Foru Aldundiekin egoera erregularizatuta duela, baita Eusko Jaurlaritzarekin edo haren edozein sozietate edo erakunderekin ere.
- 4.- Gizarte Segurantzarekin ere egoera erregularizatuta duela.
- 5.- Honako hauek dira enpresa eskatzailearen datuak, mikroenpresa eta enpresa txiki eta ertainen definizioari buruzko Europako Batzordearen 2003//5/6ko Gomendioan adierazitakoaren arabera:

	Langile kopurua	Negozio-bolumena (€)	Urteko balantze orokorra (€)
Itxitako azken ekitaldia			
Itxitako azken aurreko ekitaldia			

Eguna eta sinadura:

F3 PASIBO GALDAGARRIA FINANTZATZEKO BEHARRIZANEN DESKRIBAPEN-MEMORIA

1) Martxoaren 19ko 183/2013 Dekretuaren 3. artikuluan aipatzen diren pasibo arrunteko kontuak honela daude enpresaren balantzean:

(Zenbatekoa eurotan)

IZENA	2011	2012
Hornitzaileak		
Hornitzaileentzako aurrerakinak		
Epe motzeko zorrak		
Epe motzeko errentamendu finantzariogatikoko hartzekodunak		
Epe laburrean ordaindu beharreko efektuak		
Zorren epe laburrerako interesak.		
Epe laburreko bestelako pasiboak		
GUZTIRA		

2) Pasibo arrunta finantzatzeko beharrizanen nahiz lortutako baliabideen aplikazioaren deskribapen laburra.

2013ko martxoaren 22a, ostirala

3) Finantzazio eskabidea egin osteko egoera finantzarioa

Pasiboa (epe luzera)	Zorra	Hasiera-data	Zorra, egun honetan	Amortizazioa	Amortizazioa	Amortizazioa	Amortizazioa	
Finantza-erakundearen identifikazioa	Hasieran	Zorra	2012.12.31	2013	2014	2015	2016	Besteak

Pasiboa (epe laburra)	Zorra
Finantza-erakundearen identifikazioa	Hasieran

Amortizazioa
2013

2013ko martxoaren 22a, ostirala

F1A

ESKABIDE-ORRIA

Espediente-zenbakia:Sozietatearen izena:.....

Izen-abizenak:..... NAN zk.:.....

Kargua:.....

Honako enpresa honen legezko ordezkartzan: IFZ:.....

Enpresaren jarduera:

Helbidea:

Tel.:.....Faxa:.....Helbide elektronikoa:.....

Honen bitartez, «Enpresa txiki eta ertainentzako, banakako enpresaburuentzako eta profesional autonomoentzako finantza-laguntzaren programa»ren laguntza eskatu nahi dut.

Eguna eta sinadura:

Honekin batera doazen agiriak:

- ↑ - Enpresaren datuei buruzko erantzukizunpeko aitortpena.
- ↑ - Zerga-betebeharrak egunean dituela dioen ziurtagiria.
- ↑ - Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela dioen ziurtagiria.
- ↑ - Foru Aldundiaren ziurtagiria, enpresak alta emanda duen jarduera ekonomikoen gaineko zerga azaltzen duena.
- ↑ - 2012ko diru-sarrera eta gastuen eta 2013rako aurreikuspenen egikaritzeari buruzko dokumentazioa.
- ↑ - Eskatzailearen ondasunen aitortpena.
- ↑ - Pasibo galdagarria finantzatzeko beharizanen memoria.

- Izaera Pertsonaleko Datuak babesteko 15/1999 Lege Organikoan jasotakoa betetzeko, Ogasun eta Finantza Sailak ondokoa adierazi nahi ditu: agiri honetan idatzi dituzun datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugu, ondoren tramitatu ahal izateko. Datu horiek elkarren bermerako sozietateei eta finantza-erakundeei utzi ahal izango zaizkie, erakunde horiek finantza-programa hau kudeatzen lagunduko dutelako. Eskatzaileak datuak kontsultatu, zuzendu, baliogabetu eta aurkaratzeko eskubideak erabili ahal izango ditu, Legeak aurreikusten duenez, Ogasun eta Finantza Sailaren aurrean: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

2013ko martxoaren 22a, ostirala

F2P

ERANTZUKIZUNPEKO AITORPENA

Espediente-zenbakia:Sozietatearen izena:.....

Izen-abizenak:..... NAN zk:.....

ADIERAZTEN DU:

- 1.- Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duela.
- 2.- Alta emanda dagoela norberaren konturako langileen edo autonomoen Gizarte Segurantzaren Araubide berezian.
- 3.- Etekinak lortzen dituela pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari lotutako jarduera ekonomikoen edo profesionalen bidez.
- 3.- Indarreko legediaren arabera, zerga-betebeharrei dagokienez, Foru Aldundiekin egoera erregularizatuta duela, baita Eusko Jaurlaritzarekin edo haren edozein sozietate edo erakunderekin ere.
- 4.- Gizarte Segurantzarekin ere egoera erregularizatuta duela.

Eguna eta sinadura:

F4 ABALA BAIMENTZEKO AGIRIA

1) ERAKUNDE ABAL-EMAILEA:

2) BANAKAKO ENPRESABURU / AUTONOMO / ENPRESA ONURADUNAREN DATUAK

Sozietatearen izena / Izena	
Sozietatearen helbidea	
IFZ / IFK:	
EJSN	
Jardueren deskribapena	

3) ABALATUTAKO FINANTZA-ERAKUNDEA

Eragiketa-mota	
Baimenaren zk.	
Eragiketaren zenbatekoa	
Baimenaren eguna	
Interes-tasa	Euribor + (%); % xx,xx (tasa finkoa bada)
Funtsatzea	ICO bai/ez BGAE bai/ez
Iraungipena	
Gabealdi nagusia	Bai/Ez.
Finantza-erakundea	

4) BESTELAKOAK

Bestelako ohar batzuk	
-----------------------	--

Honen bitartez, ziurtatu nahi dut (erakundea) EBSk baimena eman duela (2. epigrafean deskribatutako enpresari/pertsonari) abala eman eta gauzatzeko, eranskin honetan azaldutako baldintzei jarraituz, hori guztia enpresa txiki eta ertainak, banako enpresarioak eta profesional autonomoak finantzarioki laguntzeko programa garatzen duen martxoaren 19ko 183/2013 Dekretuan araututako baldintzen arabera.

....., 2013korena.

(ERAKUNDE ABAL-EMAILEA) E.B.S.

Izpta.: